

HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_415/22_03

Enpleguaren Euskal Legea Proiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan ekainaren 22an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Lana eta Enplegua Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena ekainaren 8koa da eta ekainaren 13koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:



“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Xedapenaren edukiari dagokionez, euskarari buruzko aipamen bakarra aurkitzen dugu 31.1 artikuluan h azpiatalean. Bertan xedatzen da Euskal Enplegu Sareko entitateek zerbitzu-zorra erabiltzen duten pertsona fisikoek harremanak zein hizkuntza ofizialetan izan nahi dituzten aukeratzeko eta horregatik diskriminatuak ez izateko duten eskubidea bermatuko dutela. Xedatutakoa egokia da Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen honako artikulua hauetan oinarrituta:

“4. artikulua:

Herri-aginteek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte.

5.2 artikulua:

Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.”

Ziur gaude Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitate guztiek behar diren erabakiak hartuko dituztela herritarrei dagozkien hizkuntza eskubideen egikaritzea bermatzeko.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege proiektuaren xedea da pertsonen enplegarritasuna hobetzeko dituzten eskubideak eta betebeharrak definitzea, Euskal Enplegu Sarea sortzea, eta haren zerbitzu-zorroa eta kudeaketa antolatzea.

Euskara pertsonen enplegarritasuna hobetu dezakeen gaitasuna da, eta, beraz, ziur gaude behar diren erabakiak hartuko direla aztertzen ari garen Legeak ezarritako plan (11.art.), prestakuntza (12.art.) eta gainerako tresnetan euskararen ezagutzaren sustapena kontuan hartzeko.

Testuaren 21.2 artikulua xedatzen du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen kalitatea bermatzeko, orientabide gisa definituko direla zerbitzu bakoitzari

atxikitako langileentzako gomendagarriak diren titulazio-baldintzak eta, hala badagokio, prestakuntza osagarria eta esperientzia, hargatik eragotzi gabe administrazio eta entitate publiko bakoitzak lanpostuen zerrendak definitzeko duen eskumen. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera beharrezkoa iruditzen zaigu definituko diren baldintzen artean hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak gehitzea. Horrela, artikulua honela idatzia gera liteke:

*“2. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen kalitatea bermatzeko, orientabide gisa definituko dira zerbitzu bakoitzari atxikitako langileentzat gomendagarriak diren titulazio-baldintzak, **hizkuntza eskakizunak**, eta, hala badagokio, derrigortasun-data, prestakuntza osagarria eta esperientzia, hargatik eragotzi gabe administrazio eta entitate publiko bakoitzak lanpostuen zerrendak definitzeko duen eskumena.”*

Bestalde, 59. artikulua Enplegu Politika Publikoen euskal Kontseiluaren osaera arautzen du. Kideak izendatzerakoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua sustatuko dela xedatzen da, karguaren ondorioz kide direnei kalterik egin gabe. Euskararen gaitasunaren aldagaia ordea ez da aurreikusten. Gogoratu behar dugu Hizkuntzaren normalizazioa zein genero berdintasuna biak Eusko Jaurlaritzako politika publikoetako zeharkako gaiak direla.

Kontseiluko kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainerako kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea 59.3 artikuluan:

3. Kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen presentzia orekatua sustatuko da, karguaren ondorioz kide direnei kalterik egin gabe.

62. artikuluko Enplegu Batzorde Teknikoaren kasuan ere egoera berean gaude. Kasu honetan, 62.2 artikulurako idazketa hau proposatzen dugu:

*2. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren kide kopuru berak eta ordezkagarritasun berak osatuko dute. **Kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea** eta gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatuko da. Kideek zuzendari maila izango dute gutxienez, eta udalerrien kasuan, zuzendari publiko profesionalak izango dira.*

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeke zuzendaria